

## Irakaslearendako erantzunak

### Euskaldun bat Marten-Ariketak

1. Nork kontatzen du ipuin hau? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Zorrotzek
<input type="checkbox"/>	Unaik
<input checked="" type="checkbox"/>	Narratzaileak
<input type="checkbox"/>	Hegazkinak

2. Zertan ari ziren Zarauzko kaian haurrak? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Zinera joaten
<input type="checkbox"/>	Mendira igotzen
<input checked="" type="checkbox"/>	Jolasean eta igeriketan
<input type="checkbox"/>	Arrantzan eta kaniketan

3. Zergatik beldurtu ziren martetarrak Zarauzko haurrak ikusterakoan? (Labur idatzi)

.....Gizon handiak zirelakoan.....

.....

4. Irakurri ondorengo hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien ipuinaren ideia nagusia: (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Unai mutiko ausarta da eta Martetarren hizkuntza menderatzen duenez haiekin joaten da.</li></ul>
<input checked="" type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Martetar batzuk heltzen dira Zarautzera, eta Unai gonbidatzen dute haiekin Martera joatera.</li></ul>
<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Unaik uste du Marte Lurra baino politagoa dela eta hara joaten da bisitan.</li></ul>

5. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera:  
(1. 2. 3. 4.)

3	• Arratsalde on, lurreko gizon handiak!
4	• Oraingo gure lana bukatu da eta Martera goaz.
1	• Une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean.
2	• Hamar gizon ziren hegazkinetatik jaitsi eta haurrengana inguratu zirenak.

6. Zorrotzek honela dio: "...bake asmotan etorri gara..." Zer esan nahi du horrek? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Herrian zegoen gerrarekin amaitu nahi zutela.
<input type="checkbox"/>	Bake izeneko emakumea ekartzen zutela haiekin.
<input checked="" type="checkbox"/>	Inori kalte egiteko asmorik ez zutela.
<input type="checkbox"/>	Martetik diru asko ekartzen zutela.

7. Zer kontatzen da istorio honetan? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Zarauzko herria deskribatzen du zehatz-mehatz.
<input type="checkbox"/>	Martetarrak Lurrera zergatik etorri diren argudiatzen du.
<input checked="" type="checkbox"/>	Haurren eta martetarren arteko topaketa nola ematen den kontatzen du.
<input type="checkbox"/>	Martetarrek eraman behar dituzten gauzak zerrendatzen ditu.

8. Deskribatu Unai, Martera joateko ovnian edo hegazkinean sartu zenean, izango zituen kontrajarritako bi sentimendu, hau da, bata bestearen aurkakoa:

*Ulermen sakona* – Testutik kanpo dauden sentimenduak ondo adierazten ditu eta bi sentimendu horiek kontrajarriak dira. Adb.: Pozik dago mundu berri bat ezagutuko duelako, eta triste dago bere familia ez duelako ikusiko, urte betez.

*Ulermen ona* – Testutik kanpo dauden sentimenduak ondo adierazten ditu nahiz eta biak ala biak positiboak edo negatiboak izan batera. Adb.: pozik dago ovnia oso azkarra delako, eta kontent doalako Martera.

*Gutxienezko ulermena* – Erantzunak sentimendu bat baino ez du azaltzen nahiz eta ondo adierazitakoa izan.

9. Esaldi hauetan azpimarraturik dagoen hitzaren sinonimoa eman:

- Itsasoa bare-bare zegoen                    ( \_\_ lasai, trankil...
- Haurrak izutu egin ziren                    ( \_\_ beldurtu, ikaratu...
- Oraingo z gure lana bukatu da            ( \_\_ amaitu, burutu...
- Urte bete ederki pasako duzu            ( \_\_ ongi, ondo, ontsa...

10. Idatz ezazu hurrengo paragrafoa orainaldian eta geroaldian:

“Lehenbizi, haurrak izutu egin ziren, baina ondo begiratu ondoren, *ovni* eder bat ikusi zuten Santa Barbara gainean.”

ORAINALDIA:

\_ Lehenbizi, haurrak izutu egin dira, baina ondo begiratu ondoren, *ovni* eder bat ikusi dute Santa Barbara gainean.

GEROALDIA:

\_ Lehenbizi, haurrak izutu egingo dira, baina ondo begiratu ondoren, *ovni* eder bat ikusiko dute Santa Barbara gainean.

11.- Unai martetarrei ea inork euskaraz egiten zuen galdetu zien. Horietako batek bazekien. Horrek, “Laster asko erantzun zion Unairi”. Esaldi hori berdin geldituko litzateke LASTER ASKO jarri ordez hauetako bat jarrita:

<input type="checkbox"/>	Modu horretan
<input checked="" type="checkbox"/>	Berehala
<input type="checkbox"/>	Une hartan
<input type="checkbox"/>	Garai honetan